



---

## AKTA

Aiarako Kuadrillaren TOKIKO GOBERNU BATZARRAK egindako **ezohiko bilkurarena**,

**2023ko URTARRILAREN 16koa**

Organo honetako kideen bilkura egin da **Amurrioko udaletxearen Osoko Bilkuren Aretuan 14:05ak** direnean, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako **presidente Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua eta Gianfranco Ghiri Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)  
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)  
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)  
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)  
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)  
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)  
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)  
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)  
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)  
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)  
Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)  
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)  
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)  
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)  
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)  
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)  
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)  
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)  
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)  
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)  
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)  
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)  
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak ez dira bertaratu eta ezin etorria justifikatu dute:



---

Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)  
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ- PNV)

Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)  
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)  
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)  
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)

Ibarlucea Ortueta jauna 14:10ean sartu da bilkurara, gai-zerrendako bigarren puntua eztabaidatzen ari zenean, eta San José Martínez jn. eta Cortazar Agüera and. 14:20ean sartu dira, gai-zerrendako hirugarren puntua eztabaidatzen ari zenean.

**Kuadrillako presidente andreak, 14:05ean**, osoko ezohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, **lehenengo deialdian**, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

## **1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Deialdiarekin batera, 2022ko azaroaren 28an egindako bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da hori aztertzeko.

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) iruzkin batzuk egin ditu Ghiro jaunak haren bilkuraren irteera jasotzeko moduari buruz. Eskatu du aktan jaso dadila Alamillo jaunaren esku-hartzearen ondoren eta bilkura utzi baino lehen badakizkitela batzordearen aurkako errekurtsioak saihesteko aldaketak eta hori Kuadrillak 2020ko uztailearen bilkuran emandako epaiarekin erabaki zela.

ERABAKI DA, aho batez, 2022ko azaroaren 28ko bilkuraren akta onestea, Barrios Medina jaunak proposatutako aldaketarekin.

## **2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2023 AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA. (II. ERANSKINETIK VIII. ERANSKINERA)**

Presidente andreak azaldu du OGASUN, FINANTZA, AUREKONTU, EKONOMIA SUSTAPEN, ENPLEGU ETA BERRIKUNTZAREN INFORMAZIO BATZORDEAK 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran honako hau erabaki zuela:



---

2023rako aurrekontuen aurreproiektuari aldeko irizpena ematea, aldeko zazpi botoen gehiengoarekin, EAJ/PNVko hiru, EH-BILDUko bi, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen bat eta AIARA BATUZEn bat, OKONDO AURRERERen abstentzio batekin. Honako **ERABAKI** hau hartzea proposatu da:

**IKUSI DA** arloko teknikariak proposatutako 2023 ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektua.

**ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.-** Hasiara baterako onestea 2023 aurrekontua, BOST MILIOI BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMOKO (5.279.048,78 euro) Gastu eta Sarreraren zenbatekoarekin.

**BIGARRENA.-** Presidente andreari behin betiko onesteko dagozkion izapideak hasteko eskatzea.

**Barrios Medina jaunak** (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du bere taldearen botoa abstentzioa izango dela, eta aurrekontuak aprobetxatu nahi dituela Kuadrillaren gaineko hausnarketa egiteko, eskualdeko ardatz antolatzailea izan behar duela. Batez ere turismoan eta sustapen ekonomikoan. Udalen eta Kuadrillaren arteko taldeko estrategia bilatu behar dugu turismoa lerrokatzeko. Turismoaren gaineko hausnarketa estrategikoa egitea askoz eraginkorragoa izan daiteke Ardatz antolatzaile horri buruz eztabaidatzeko foroak sortzea eskatzen du, eta udalerrien artean estrategia koordinatzea. Sustapen ekonomikoaren arloan, enplegurako planetik harago, Kuadrillak enplegu erakargarriagoa sortzen saiatu beharko luke, eta, adibidez, Aiaran enpresa teknologikoentzat guneak sustatzen. Horren guztiaren ondorioz, uste dute taldeko strategiak antolatzeko foroak planteatu behar direla.

**Iturbe Errasti andreak** (EH-BILDU talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du abstenituko direla; izan ere, ados daude Kuadrillak eskualdeko politika gehiago egiteko beharrarekin, baina penatuta legealdi honetan ez delako Kuadrillaren egoitza berriaren proiektua egin.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du bere taldeak uste duela aurrekontuak egokiak, doituak eta errealistak direla. Gaur egun ez dago aurrekontu-partidarik Omniaren proposamenerako, baina hausnartu beharra dago eta landu behar diren ildoak aztertu behar dira, eta begiratu ea aurrekontuak aldatu behar diren.

Ez da gaiari buruzko eztabaida gehiagorik egon; hortaz, bozkatu egiten da, eta **ERABAKI DA**, aldeko hamahiru botoen gehiengoarekin (EAJ/PNVko hamar,



---

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAKen bat eta AIARA BATUZen bat), 8 abstentziorekin (EH-BILDUren sei eta OMNIaren bi) honako **ERABAKI** hau hartzea:

**IKUSI DA** arloko teknikariak proposatutako 2023 ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektua.

### **ERABAKI DA**

**LEHENENGOA.-** Hasiara baterako onestea 2023 aurrekontua, BOST MILIOI BERREHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMOKO (5.279.048,78 euro) Gastu eta Sarreren zenbatekoarekin.

**BIGARRENA.-** Presidente andreari behin betiko onesteko dagozkion izapideak hasteko eskatzea.

### **3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, HIRIKO HONDAKINAK BATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LUZAPENA**

Presidente andreak azaldu du INGURUNEKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2023ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran honako hau erabaki zuela:

Aho batez, honako **ERABAKI** hau hartzeko proposamenaren aldeko irizpena egitea:

**IKUSI DA** AIARAKO KUADRILLAREN ETXEKO HONDAKINAK ETA HONDAKIN ASIMILAGARRIAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN kontratuaren hirugarren hizpaketa, 2018ko abenduaren 11n CESPA COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS Y AUXILIARES SArekin (gaur egun PREZERO ESPAÑA SAU) sinatua.

*“Kontratazio honetan, lau (4) urteko egikaritze-epea ezartzen da, luzatu ahal dena, alde bien adostasunarekin eta aurretik, kontratua amaitu baino lehen, Kuadrillaren Batzordearen berariazko adostasunarekin urte bateko epeetan, bosgarren eta seigarren urte bat gehitzeko aukerarekin, SPKLTBren 303. artikuluari jarraikiz.*

*Luzapena ezingo da alde bien isileko baimenarekin egin, SPKLTBren 23.2. artikuluari jarraikiz. Horretarako, luzapena organo kontratatzaileak adostuko du, eta beharrezkoa izango da enpresariarentzat. kontratua berariaz luzatu beharko da.*

*Hala ere, kontratua amaitzen denerako ez bada kontratistak egin beharreko zerbitzua jarraitzea bermatzen duen kontratu berria gauzatu, organo kontratatzaileak aurretik jakin ezin dituen gertakarien ondorioz, eta zerbitzu hori ez eteteko interes*



---

*publikoko arrazoiak badaude, organo kontratatzaileak jatorrizko kontratua luzatu ahalko du kontratu berriaren egikaritzea hasi arte, kasu guztietan bederatzi hilabeteko epe batez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.*

*Administrazio-klausula partikularren agiriaren 16. klausulan ezarritakoaren bidez, kontratazio honen hasiera-data gisa **2019ko otsailaren 1a** ezartzen da, eta esleipenduna derrigorrez zerbitzu hori ematen hasi behar da egun horretan bertan.”*

**IKUSI DA** arloko teknikariak bidalitako 2022ko abenduaren 30eko txostena.

### **ERABAKI DA**

**LEHENENGOA.-** Aiarako Kuadrillaren etxeko hondakinak eta hondakin asimilagarriak biltzeko eta garraiatzeko kontratuaren luzapena onestea, kontratuan aurreikusitako baldintza berdinekin, kontratu berriaren egikaritzea hasi arte, kasu guztietan gehienez 2023ko urriaren 31 arte, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.

**BIGARRENA.-** Presidente andreari luzapena gauzatzeko behar diren izapideak egiteko gaitzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia jakinaraztea PREZERO ESPAÑA SAUri.

**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politikoko bozeramaile gisa) gogorarazi du batzordean epeei buruz hitz egin zela, eta gogoan izan behar direla.

**González García andreak** (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du batzordean aurreko lizitazioak behar izan zuen denbora planteatu zela, eta gaur egun zerbitzuak nola dauden ikusita, batzordean dagoeneko zalantzak dituzte planteatuta, egin daitezkeen errekurtsoengatik. Luzatutako kontratua berriz negoziatzeko aukerak aurrekusi behar dira urriaren 31 baino lehen. Gogorarazi du uztailetik indarrean dagoela eta behin betiko esleipena Kuadrillaren Batzordean egin behar dela, eta urrira arte ez da legealdi berria hasten. Horretaz gain, adierazi du alderantziz uzten ari diren edukiontzia daudela, eta zerbitzua ahalik eta baldintza hoberenetan ematen dela ziurtatu behar dela.

**Añibarro Maestre jaunak** (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du Kuadrillaren Batzordea funtzioetan dagoen bitartean esleitu daitekeela, baldin eta kontratazioa aurretik onetsi bada, eta adierazi du pleguak ez direla aurrekoak bezain konplexuak, aurreko lizitazioa duela hamar urte baino gutxiago egin zelako.

**Pinedo Vadillo jaunak** (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) esan du kasu honetan Merkatuaren Aurreko Kontsulta egin dela, pleguak egitea errazten duena.

Ez da gaiaren gaineko eztabaida gehiagorik egin, eta bozkatu egin da. Aho batez, honako ERABAKI hau hartzea ADOSTU DA:



---

**IKUSI DA** AIARAKO KUADRILLAREN ETXEKO HONDAKINAK ETA HONDAKIN ASIMILAGARRIAK BILTZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN kontratuaren hirugarren hizpaketa, 2018ko abenduaren 11n CESPA COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS Y AUXILIARES SArekin (gaur egun PREZERO ESPAÑA SAU) sinatua.

*“Kontratazio honetan, lau (4) urteko egikaritze-epea ezartzen da, luzatu ahal dena, alde bien adostasunarekin eta aurretik, kontratua amaitu baino lehen, Kuadrillaren Batzordearen berriazko adostasunarekin urte bateko epeetan, bosgarren eta seigarren urte bat gehitzeko aukerarekin, SPKLTBren 303. artikuluari jarraikiz.*

*Luzapena ezingo da alde bien isileko baimenarekin egin, SPKLTBren 23.2. artikuluari jarraikiz. Horretarako, luzapena organo kontratatzaileak adostuko du, eta beharrezkoa izango da enpresariarentzat. kontratua berriaz luzatu beharko da.*

*Hala ere, kontratua amaitzen denerako ez bada kontratistak egin beharreko zerbitzua jarraitzea bermatzen duen kontratu berria gauzatu, organo kontratatzaileak aurretik jakin ezin dituen gertakarien ondorioz, eta zerbitzu hori ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, organo kontratatzaileak jatorrizko kontratua luzatu ahalko du kontratu berriaren egikaritzea hasi arte, kasu guztietan bederatzi hilabeteko epe batez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.*

*Administrazio-klausula partikularren agiriaren 16. klausulan ezarritakoaren bidez, kontratazio honen hasiera-data gisa 2019ko otsailaren 1a ezartzen da, eta esleipenduna derrigorrez zerbitzu hori ematen hasi behar da egun horretan bertan.”*

**IKUSI DA** arloko teknikariak bidalitako 2022ko abenduaren 30eko txostena.

## **ERABAKI DA**

**LEHENENGOA.-** Aiarako Kuadrillaren etxeko hondakinak eta hondakin asimilagarriak biltzeko eta garraiatzeko kontratuaren luzapena onestea, kontratuan aurreikusitako baldintza berdinekin, kontratu berriaren egikaritzea hasi arte, kasu guztietan gehienez 2023ko urriaren 31 arte, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.

**BIGARRENA.-** Presidente andreari luzapena gauzatzeko behar diren izapideak egiteko gaitzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia jakinaraztea PREZERO ESPAÑA SAUri.

## **4.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**



---

Presidente andreak azken bilkuratik hona onetsitako Presidentzia Dekretuen berri eman du, eta hauek dira:

70/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 30ekoa; azaroko ordainsaria.

71/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 7koa; lehiaketa-oposizioaren bidez enplegu-eskaintza egonkortzeko deialdiaren oinarriak onestea.

72/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 15ekoa; Berdintasuna babesteko kredituak gaitzea.

73/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 15ekoa; RSU doako aholkularitza juridikorako kredituak gaitzea.

74/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 15ekoa; Kreditu Gehigarriak 1. kapitulua.

75/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 16koa; Ingurumeneko Esleipena, Zenbait esleipen.

76/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 16koa; Vital Fundazioaren hitzarmena eta ekitaldiak onestea.

77/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 16koa; 2030 Agendaren lizitazioaren pleguak onestea.

78/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 19koa; ecoembes hitzarmena onestea.

79/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 26koa; abenduko ordainsaria/2022ko apartekoa eta atzerapenak.

80/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 27koa; Audio eta Antolamendu-arloak lurraldeko planen lizitazioa onestea.

81/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 28koa; neguko bidezaintzaren prezioen aldaketa onestea.

01/2023 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 2koa; 2023ko aurrekontuen aurrekontu-luzapena onestea.

Amaitu baino lehen, Presidente andreak taldeek eztabaidatutako gaietan izandako adostasuna eskertu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:30** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**PRESIDENTEA: Stua.: Encina Castresana Astarloa**

**ALDI BATERAKO IDAZKARIA: Stua.: Gianfranco Ghirò Alonso**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE